



## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa hasi aurretik, ezinbestekoa da egin beharko ditugun jarduerak identifikatu eta kudeatzea, honela bezeroak lortzeko eta enpresak aurrera egiteko. Jarduera horiek mota askotakoak izan daitezke, produkzioa, zerbitzuak... baina gure kasuan plataforma edo sarearen jarduerak kudeatu beharko ditugu, izan ere, aplikazio bat da gure produktua. Hau mantendu ahal izateko pausu ugari jarraitu beharko ditugu.

Pausu horiek definitu aurretik, gogoratu behar dugu gure aplikazioak zenbait ezaugarri berritzaile izango dituela, beste antzeko aplikazioetatik desberdintzeko. Esate baterako, balorezko proposamenen esan bezala, gure aplikazioak harreman berriak egiteko aukera eskainiko du, elkarrekin mendi ibilaldiak egiteko aukera emanez. Horrez gain, software librea izango dela baliatuz, jendeak igotako mendibide ezezagunak erakutsiko ditu aplikazioak, baita mendi bide horien ezaugarri ugari ere. Honela, teknologiaren bitartez elkarbizitza sustatuko dugu, jendeari jende berria ezagutzeko aukera emanez kirola egin bitartean.

Aplikazioak mendi bide ezezagunak eta haien ezaugarriak erakustez gain, mendi bueltak egitean jende berria ezagutzeko aukera paregabea ematen du.

Erabilerraza Doan  
Hizkuntza ugari 18 urte +  
Eskuragarria Software librea

GALDUTA MENDIRA BAKARRIK JOATEAN?

LANBRORA

Aplikazio berritzaileak:  
Elkarbizitza sustatu, mendi bide berriak ezagutzuz.  
Jende berriarekin erlazionatu.

Ehi... lanbrora noa  
Zure oroimen hau blaitzeko  
Memoriaren leihoen kristalean  
...  
Lanbro artean galten naiz  
Kaleko koordenadetan  
Ateak eta portalak.  
...  
Espero nituen kamelu eta biserak  
Eta zer... labernak  
Topaketa prestatzeko  
Nire buru galdua argitzeko  
...  
Eramen ninduten zuregana.  
Hire lotsa ezkatuzen  
...  
Mendi hotzetaraino  
Ai... hemen, lanbrora nihoa  
Itsu eta antzietatez  
Haltzetan itsasotzera.  
...  
Lanbrora, Alkolea 1982  
Egilea: Itoiz  
Konpositorea: Juan Carlos Perez

Aplikazioa eskuratzeko ahalbideak denborarekin eta arrakastarekin batera handitzen joango dira. Hasieran gure aplikazioa "Google Play" aplikazioan egongo da eskuragarri, hau android sistema duten gailuetan egoten den aplikazio bat da, bertan gurea bezalako aplikazioak eta beste motatako aplikazioak daude eskuragarri. Gure aplikazioak, hau da, "Lanbrora" k erabiltzaile kantitate handia lortzean, gure enpresa beste sistemetara zabalduko dugu, Apple sistema eragilerara esate baterako. Beste enprekin kudeatuko dugu gure eskaintza, hau da, beraien gailuetan gure aplikazioa eskuratzeko, gure aplikazioa modu batean erosi beharko dute. Hilabeteroko ordainketa bat izango da, eta hau bezalako negozioak kudeatzeko bulegoetan elkartuko gara.

Gure aplikazioa, beste aplikazioekin alderatuta atzean ez geratzeko, etengabe garatzen egon beharko da gure bezeroen beharren arabera, erabiltzaile gehiago lortzeko. Aplikazioa erabili ahal izateko, zerbitzari batzuk eduki beharko ditugu, hauek bulegoetan kokatuta egongo dira, eta horien mantenua

bermatu beharko dugu. Horrez gain, aplikazio garatzen joango da, beti ere, gure bezeroen beharrak erreferentzia bezala hartuta. Software askea izango denez edozeinek ahalko ditu bere ibilaldiak ezarri aplikazioan eta beraien iritzia ezarri ibilaldi horien inguruan. Guk edukiko ditugun bulegoetan bezeroak ezartzen dituzten aldaketak aztertzen egongo gara, horietako batzuk onartzeko eta beste batzuk baztertzeke. Beste aldetik, “Google Play”-en ezartzen dituzten gomendioak irakurtzen joango gara, bezeroek aplikazioan ikusten dituzten arazoak edo hobetu beharreko atalak konpontzeko eta horrela aplikazioa hobetzen joateko.



Gure enpresak aurrera egin dezan, pausu garrantzitsuenetako bat produktua promozionatzea izango da, honela bezeroak lortuko ditugu, eta bezero asko ditugunean publizitatea eginez lortuko ditugu diru sarrerak. Aplikazioa saltzeko modu ugari erabiliko ditugu, gure bezeroak, merkatuaren segmentazioan ikusi genuen bezala, askotarikoak izango direlako. Alde batetik, aurretik diseinatu dugun eskuorriak banatuko ditugu herrietan zehar, jendeak uler dezan zer den gure aplikazioa eta nola izan daitekeen onuragarria eurentzat. Horrez gain, Spotify aplikazioan jarriko dugu aplikazioaren audiozko iragarki bat, aplikazio hau jende gazteak erabiltzen baitu musika entzuteko, eta honela eurak erakarriko genituzke. Azkenik, egunkarietan ere jarriko genituzke iragarkiak, izan ere, aplikazioa jende helduari ere zuzendua dago, eta jende helduak egunkaria irakurtzeko joera duenez, eurengana iristea lortuko genuke egunkarietan iragarkiak jarritz.

Aplikazioa bi atal nagusitan banatuko dela erabaki dugu, izan ere, alde batetik mendi bideak erakutsiko ditu, eta bestetik, jendearekin elkartzeko zerbitzua emango du. Aplikazioan sartzean, bi aukera agertuko dira: mapak eta elkarketak. “Mapak” hautatzean, norberaren ingurua agertuko da, eta 20km-ko erradioan dauzkan ibilbide eta hotelak edo albergeak azalduko zaizkio (zerbitzu bakoitzak bere ikurra edukiko du, desberdindu ahal izateko). Ibilbideak aplikazioaren hasieran Euskal Herrira





mugatuko dira, eta aplikazioa handitu ahala, hedatzen joango dira, jendeak igoko baititu mendi bideak. Hotel eta albergeen kasuan, hasieran Espainia mailakoak bakarrik egongo dira, hiriburuetakoak eta batez ere mendikateen inguruan daudenak, azken finean, gure helburua mendizaleei lo egiteko leku posibleak erakustea baita.

Bestetik, “Elkarketak” hautatzen bada, aste horretako erabiltzailearen inguruko elkarketak azalduko dira (elkarketaren izena eta informazio laburtua: non, noiz, norekin...), goian hurbilen daudenak eta beherantz joan ahala urrutiago daudenak azalduko dira. Horietako edozein sakatzean, elkarketa horren informazioa zehaztuta azalduko da, nork antolatzen duen, non izango den, egun hartan egongo den eguraldia, eraman beharrekoa, zein ordutatik zein ordutara izango den... eta horren ondoan “elkartu” botoia azalduko da, mendi bide horretara joan ahal izateko.

Elkarketen atala ez da asko aldatuko, hasieratik egina edukiko baitugu, baina aplikazioak erakusten dituen mendi bide eta hotel kopurua handitzea ezinbestekoa izango da erabiltzaile geroz eta gehiago edukitzeko. Horretarako, hasieran guk geuk jarritako mendi bideak eta udaletxeekin hitz egindako hotelak azalduko dira, eta geroz eta gehiago edukitzeko, software libreaz baliatuko gara, honela edonork euren mendi bideak igotzeko aukera edukiko du.



Denbora pasa ahala, gure aplikazioak zenbait arazo eman ditzake, zerbitzariak erortzea, bezeroak mendian kobertura gabe geratzea... Lehenbiziko kasuan adibidez, bulegoetan langileak prest egongo dira egoera horri aurre egiteko eta berriz dena lehen zegoen bezala uzteko. Bulegoetan beti egongo da talde bat aplikazioaren arazoak konpontzeko (atal batek ez badu ongi funtzionatzen...). Gure aplikazioa erabiltzeko, internetera konektatuta egon beharko dira gure bezeroak, beraz internetik ez badute ezingo dute erabili, eta mendian hori sarritan gerta daiteke. Beraz, behin mendi ibilaldia prest dutenean, ibilaldia deskargatzeko aukera edukiko dute erabiltzaileek. Horrela, mendian daudenean ez dute internetaren beharrik edukiko beraien ibilaldian aurrera egiteko.

Horrez gain, aplikaziora jendeak mendi bideak igotzeko aukera edukitzea oso onuragarria izango den arren, arazo batzuk ere ekar ditzake. Wikipedia



adibidez, erabat librea da, eta edonork jar dezake bertan informazioa, baina jende askok informazio faltsua jartzen du. Hori gure aplikazioan ere gerta daiteke: ziurrenik jendeak gezurrezko mendi bideak igoko ditu, edo benetakoak ez diren hotelak. Arazo hori konpontzeko, guk bulegoetan banan banan bermatu beharko genuke mendi bideak eta hotelak benetan erabil daitezkeen. Gainera, jendeak euren zalantzak argitzeko deituko dute, orduan, norbaitek ikusten badu mendi bide bat ez dagoela ongi, deitu egingo liguke, eta guk mendi bide hura kendu edo konponduko dugu.



WIKIPEDIA  
The Free Encyclopedia

Beste arazo posible bat, mendi bide horietan karreterak eta eraikinak eraikitzea edo hotelak eta albergueak ixtea izango zen, hau da, mendi bidea oztopatu dezaken edozein aldaketa gertatzea. Horri aurre egiteko, urtean behin gehien erabiltzen diren mendi bideen berrikusketa (erregistratuta geratuko baita zein mendi bide erabiltzen diren gehien) bat egingo genuke, arazorik balego azkar konpontzeko.



Modu hauen guztien bidez, enpresaren jarduerak ongi kudeatuko ditugu, eta honela enpresak aurrera egingo du. Lehenengo, aplikazioa garatuko dugu, eta iragarkien bitartez erabiltzaileak lortuko ditugu. Erabiltzaile kopurua handitu ahala, aplikazioan iragarkiak jartzean interesatuak dauden enpresak areagotuko dira, honela gure diru sarrera nagusia lortuz. Baina hau ez da nahikoa izango, erabiltzaile kopurua handitu edo gutxienez mantendu beharko dugulako, eta horretarako, aplikazioa etengabe hobetzen joango gara, eta hau egiteko eta aplikazioaren mantenua bermatzeko bulegoak edukiko ditugu.